

## AURKIBIDEA

1. eranskina: Jonas eta hozkailu beldurtia ipuinaren azala	
2.eranskina: Jonas eta hozkailu beldurtia irakurketa aurreko galdetegia	2
3. eranskina: Jonas eta hozkailu beldurtia irakurketa aurreko galdetegiaren erantzunak.	3
4-eranskina: Ikasleek egindako marrazkiak	5
5.eranskina: Juan Kruz Igerabideri egindako elkarrizketa	6

1. eranskina: *Jonas eta hozkailu beldurtia* ipuinaren azala



2.eranskina: *Jonas eta hozkailu beldurtia* irakurketa aurreko galdetegia

1. Zer da beldurra ?
2. Noiz eta zergaitik sentitzen duzue beldurra ?
3. Zerk edo nork ematen dizue beldurra ?
4. Zer egiten duzue beldur zaretenean ?
5. Nork laguntzen dizue beldur zaretenean ?

3. eranskina: *Jonas eta hozkailu beldurtia* irakurketa aurreko galdetegiaren erantzunak.

1. Zer da beldurra ?

- Triste egotea
- Txarto egotea
- Gauza txar bat

2. Noiz eta zergaitik sentitzenduzue beldurra ?

- Bakarrik gaudenean
- Medikuan
- Ametsetan
- Hegazkinean

3. Zerk edo nork ematen dizue beldurra ?

- Amets gaiztoak
- Iltuntasunak
- Bakardadeak
- Heriotzak
- Sorgiñal
- Mamuak
- Tarantulak, sugeak, erleak...

4. Zer egiten duzue beldur zaretenean ?

- Atzkalak aho eraman
- Laguntza eskatu
- Begiak itxi
- Ezkutatu
- Defendatu
- Korrika egin
- Gauza politetan pentsatu

5. Nork laguntzen dizue beldur zaretenean ?

- Gurasoa
- Bakarrik
- Lagunak
- Amona/aitonak
- Neba/arreba/ahizpa/anaia
- Panpinak

4-eranskina: Ikasleek egindako marrazkiak



5.eranskina: Juan Kruz Igerabideri egindako elkarrizketa

**- Emozioei dagokien garrantzia ematen zaie Haur eta Gazte Literaturan ? Eta beldurrari?**

Oraindik ere gure eskola mailaz mailako buru-heziketa logiko-koherentean oinarritzen da gehien batean. Inteligentzia emozionalaz psikologoak eta neurologoak mintzaten hasi direnetik, sortu da gai horrekiko ardura ere, baina oso modu teknokratikoan; esan nahi da, aurrena emozioak identifikatu eta aztertzen ditugula ikerketen bidez; gero, haiek eskolan lantzeko teknika pedagogikoak asmatzen hasten gara, emozioak ere eskolako beste gai baten moduan ikastekoak balira bezala. Giro horretan, ipuinei helburu pedagogikoa ematen zaie: umeei argi gera dakiela zer diren emozioak eta nola sentitzen diren barruan.

Bestalde, emozio negatiboak, beldurretik abiatuta, sendatu beharreko zerbait balira bezala tratatzen dira; beraz, protokolo mental modukoak nahi ditugu emozio negatiboak bideratzeko, gure portaera egokia izan dadin eskolan eta etxean. Oraindik ere gure pedagogia nagusiki konduktista da, nahiz eta beste aldarrikapen batzuk ere egin nahi izan diren.

Baina ipuin tradizionalak aspaldidanik erakutsi digute badela emozioak identifikatzeko eta eraldatzeko beste bide bat. Bide sinbolikoa. Ipuinetan modu sakonean, eta askotan garratzean, erakusten dira emozioak eta sentimenduak, hala ezkorrak nola baikorrak; baina sinboloak ez du esaten “hau honela da”, baizik eta “pertsonaia honek hau honela bizi du, eta beste pertsonaia honek, honela”. Haurrak bere buruan berehala ulertzen du berak ere antzeko gauzak sentitzen dituela, baina modu propioan, modu berezian. Sinboloen mezuak irekiak dira, eta pertsona bakoitzaren baitan modu originalean gauzatzen dira.

Zer esan nahi dut horrekin? Emozioak ez direla eskolan lantzeko gai bat (izan litezke ikasle handi samarrekin, baina ez da kontu funtsezkoena), baizik eta modu sortzailean bizitzeko zerbait: ipuinen bidez, marrazkien bidez (umeen emozioen adierazle apartak dira egiten dituzten marrazkiak, bai), dantza edo gorputz adierazpenaren bidez, musikaren bidez... Hots, emozioak astintzen eta bideratzen dituzten diziplinen bidez. Hori guztia teknologia pedagogiko baten bidez laukitxotan lantzeko bihurtzen badugu, eta ebaluzio arrazionalaren mende jartzen badugu, hil egiten dugu.

Poesia da emozioak ezagutzeko arma paregabea. Emozioak identifikatzeko, ñabardurak ezagutzeko, eta oso modu pertsonalean esperimentatzeko. Berrit diot, emozioak ez dira ikasteko gai bat, bizitzeko, esperimentatzeko baizik. Hori gure eskola hain kuadrikulatua nola txertatu? Hortxe dago gakoa.

Aspaldi esan dute neuropsikiatreek-eta gauza bat ikasteko zirrara emozional batekin lotuta mila bidier hobeto eta sakonago barneratzen dela. Orduan, zer egiten dugu? Teknologia didaktiko bat asmatu emozio bat eragin eta harekin batera eskola-edukiak ikasteko, emozioen edukiak barne. Baina gure psikeak ez du horrela funtzionatzen, eta horrela funtzionarazten badiogu, ikaslea aspertu eta desmotibatu besterik ez dugu egingo, hasierako berritasuna pasatzen denean (hori, onenean).

Hau ez da berria: joan den mendeko laurogeiko hamarkadan pedagogia aurrerakoietan aldarrikatzen zen haurren askatasunarekin eta autonomiarekin lotua dago. Haurrari espazio libreak eskaini bere bizipoza gara dezan. Hortik sortzen den ikasi-nahiak ez du parerik. Garai hartaz geroztik, gauza asko "inplementatu" ditugu eskolan, baina espiritu hura hiltzen utzi dugulakoan nago.

**- Zure ustez beldurra Haur eta Gazte Literaturan konotazio negtibo gisa ageri da ? Hori horrela izan beharko litzateke ?**

Gaur egungo haur-literaturan berriro pedagogismo antzu bat nagusitzen ari da. Ez dugu esaten, baina, azkenean, umeei ondo portatzen erakusteko baino ez ditugu nahi ipuinak. Beraz, beldurra, inbidia eta portaera ez politikoki zuzenak ageri diren ipuinak baztertu egiten ditugu. Iruditzen zaigu umeari erakusten badiogu (begien aurrean jarri, alegia) benetako gizakia nolakoa den: ona bai, baina oso gaiztoa ere bai batzuetan, maitekorra bai, baina gorrotagarria ere bai batzuetan (eta horrela jarrai genezake, zerrenda luze bat osatuz), ba ume horrengan jokabide gaiztoak bultzatzen ari garela.

Baina, berriro ere, psikeak ez du horrela funtzionatzen. Argia ezagutzeko, iluna esperimentatzea beharrezkoa da; ausart jokatzeko, barruan daukagun beldurra ondo identifikatu eta zer joerak dituen ezagutu behar dugu. Emakumeen berdintasunaren alde jartzeko, matxismoaren jokabide ugariak ezagutu behar ditugu. Eta, besteak beste, ipuinek aukera ematen digute, hasieran modu sinbolikoan, eta ume handiagoeekin modu errealistan, mundua eta gizakiok benetan nolakoak garen ikusteko, ñabardura askorekin, eta bizipen emozionalekin loturik.



Haur txikiek telebistan eta tabletetan ikusten dituzte, modu errealistan, gizakion izugarrikeriak, baina ume txikien buruek ezin dituzte zuzenean asimilatu halakoak. Ipuinek eta poemek (eta oro har arteak) prestatzen dute umeen psikea modu sinbolikoan mundua eta gizakia ezagutzeko. Kontraste bortitzak (beldurra eta beldurra gainditzearen lasaitasuna barne) modu sinbolikoan bizitzeak umeen psikea indartu egiten du, sendotu, aurrerago munduak aurrez aurre erakutsiko dizkion izugarrikeriek gainbehera eramanez ez dezaten.

- ***Zein helbururekin idatzi zenuen *Jonas eta hozkailu beldurtia* ?***

Ipuin bat edo poema bat idazten dudanean ez dut helbururik jartzen. Haurrentzat bada, haur irakurle-entzule birtual bati mintzo natzaio, belarrira ari banintzaio bezala. Gutxitan izaten dut eskema bat, eta, dudanean, amaierarako apurtua geratzen da.

Esan nahi dut ez nuela helburu pedagogikorik. Irakurketen akuilua neukan, hori bai. Alde batetik, haurrei ipuin tradizioaletan eta idatzizko zenbait ipuinetan kontatzeko moduak eraginik hartu nuen tonu narratiboa. Bestetik, pertsonaia bat osatu nuen, zeinarengandik ahalik eta gertuen kokatu nintzen, kamera batekin bezala. Horregatik erabili nuen orainaldia. Bestetik, eguneroko giroa, haur txiki baten etxe-giroa. Eta, amaren behar batek une batez bakarrik geratzera behartuta, umearen buruan sortzen den irudipena. Jonasen buruak “bezalaka” jokatzeko du. Berak ipuin tradizioaletan entzun dituen otsoak bezalako beldurra eragiten dio bakardadeak; bakardade hori da otsoa, eta transferentzia psikiko bat egiten du, umeengan oso ohikoa, psikologoek adierazi izan duten bezala: hozkailuari egozten dio berak sentitzen duen beldurra, berak sentitzen duen arriskua.

Egoera umoretsu bat sortzen da haur handi samarrarentzat, baina erabat beldurgarria haur txiki batentzat. Eskola txiki batean, hiru urtekoen eta bost urtekoen arteko eztabaida sortu zen ipuina irakurri ondoren; hiru urtekoentzat, otso bat zegoen hozkailuan. Egotea eta bat-batean ez egotea hiru urteko ume batentzat erabat benetakoa da. Bost urtekoa, ordea, konturatzen da Jonasen irudimenak sortu duela otsoa, hozkailuaren motorraren dardara beldurtzat interpretatu duela, eta barre egiten du; ez dago otsorik hozkailuan. Baina hiru urtekoarentzat lehen bazegoen eta orain ez dago. Horrela jokatzeko dute ume txikiek beldurrarekin: argia itzalita, otsoa dagoela diote; argia piztuta, ez dagoela. Operazio sinboliko-magiko hori natural-natural egiten dute, ez dago kontraesanik beren baitan.

Beraz, besterik gabe, ume txiki baten mentalitatetik gertuen jarraitu nion pertsonaiari eguneroko egoera normal batean, bat-batean normaltasun hori pixka bat okertzen deneko egoeran. Bestela esanda, nire helburua literarioa baino ez zen.

**- Ipuin hau zein arlo lantzeko baliogarria izan daitekeela uste duzu ?**

Ipuin honen eta literaturaren eginkizun lehena plazera eragitea da, entzutearen edo irakurtzearen plazera, emozioa, intriga; horrekin batera dator harridura, istorioak ezusteko bidetik jotzen duenean, istorioak ezusteko emozioak eta zirrarak eragiten dituean. Beraz, lehenik, plazer estetikoa. Vigotskyk eta bestek esana dute ez dagoela ezer hezitzaileagorik plazer estetikoa baino. Berez, ipuin bat entzuteak psikea aberasten du, hizkuntza aberasten du, arte-sentsibilitatea pizten du, ideiak sortzen eta zabaltzen ditu, hasieran modu sinbolikoan, gero modu errealistan.

Horrez gainera, ipuina balia dezakegu elkarrizketa aberasgarriak sortzeko, hitz berriak ikasteko, norberaren egoerekin alderatzeko. Ipuinak umeek bizipen propioak oroitarazten ditu, eta hortik, giroa sortuz gero, bakoitzaren adierazpena lantzen da.

Emozioei dagokienez, ipuin honen kasuan, beldurraren mekanismoak ezagutzeko baliagarria da, baina betiere bizipenetatik abiatuta; umeak hasi ohi dira kontatzen zerk eragiten dien beldurra, noiz eta nola pasatu zuten beldur handi bat, eta beren jokabide eta erreakzioak kontatzen dituzte. Oso modu natural batean, umea bere emozioen mundua ezagutzen ari da, batez ere konparazioz, “bezalaka”. Beste modu batera esanda, bere buruaren kontzientzia zabaltzen ari da. Ipuinen bidez, norberaren kontzientzia zabaltzen da, eta munduaren ikuspegia ere bai.

Ez da gutxi, nik uste.

Horrez gainera, gai konkretu batzuk lantzeko erabili nahi bada ere, aukerak ematen ditu ipuinak, esate baterako, sukalde bat aztertzeko, hozkailu bat aztertzeko, etxe bateko korridoreak, gelak, ohe azpiak, komunak, kanpoko atea... Baina hori guztia bigarren eskutik dator. Lehen buruan, plazer estetikoa dago, harridura literarioa. Hori gabe, gainerakoa hotz samar geratzen da, emoziorik gabeko ikasketa.

**- Haur eta Gazte Literaturan beldurra lantzeko zein beste liburu gomendatuko zenuke ?**

Galtzagorri elkarteak badu areto bat handik hona ibili dena, Beldurraren Aretoa; ñabardura eta ikuspuntu asko aurki daitezke han.

Dena dela, oinarri-oinarrian, ipuin tradizionalak daude: Hiru txerrikumeak, Zazpi antxumeak, Txano Gorritxo, Erpurutxo, Hansel eta Gretel, Errege Zirto...; horietan beldurraren hamaika aurpegi topatuko ditugu, beldurraren aurreko hamaika jokabide, oinarri-oinarrian bat eta bera direnak: norberak barruan daraman itzala ezagutzea, bere lekuan ipintzea, eta hura kudeatzen ikastea. Hiru txerrikumeak ipuinean nortasuna garatuz eta sendotuz lortzen da otso-beldurra-itzala mendean hartzea; zazpi antxumeeek amaren laguntzarekin lortzen dute, baina han ere nortasuna sendotuz (txikienak bere sei anaiak berreskuratzean); Txano Gorritxon, biloba-amona soka antropologikoa aurkituz eta sendotuz lortzen da, eta norberaren kontzientzia garatuz-argituz (hobeto ikusiz, hobeto usainduz, hobeto ukituz...). Hansel eta Gretelen, psikearen alde emea indartuz (Gretelek salbatzen du Hansel) eta instintuak menderatuz (sorginaren tranpak gaindituz, antzararen gainean aintzira zeharkatuz). Errege Zirton heroiak bere alde emearen magia ezgutzen du, bizitzan aurrera egiteko baliabideen eta trebetasunen magia; beldurrik gabe doa hasieratik, hitzeko mutila delako, amak erakutsi diolako nola jokatu; ipuin horrek haurraren eboluzio psikikoaren goi-maila adierazten du.

Beraz, ez dago beldur mota bakar bat. Bakoitzak beldur mota berezi bat du barruan, eta beldur horren hamaika aldaera. Beraz, beldurren katalogoa infinitua dela esan daiteke. Ipuin tradizionalak, nolarebait, katalogo hori sailkatu egin dute oinarrizko sinbolo batzuen bidez. Jonasen otsoa, azken batean, zazpi antxumeen otsoaren oso antzekoa da, esate baterako.